

**19/2020 TXOSTENA, ABENDUAREN 2KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA
EZARTZEN DUENA.****I.- AURREKARIAK.**

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) honako hau ezartzen du 7. artikuluan:

«7. artikulua.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila.

1.- Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari:

- a) Legebiltzarrekiko, Arartekoarekiko eta beste instituzioekiko harremanak eta komunikazioak.
- b) Autonomia-erkidegoaren garapenerako politika eta, xede horretarako, sailen jarduerak koordinatzea.
- c) Jaurlaritzaren Idazkaritza.
- d) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- e) Enplegu publikoa, administrazio antolamendua eta langileen araubidea, hots, juridikoa eta ordainketari buruzkoa.
- f) Administrazioa, administrazio digitala, gobernu elektronikoa eta gardentasun-politika modernizatzea eta eraberritzea. Irekia plataforma kudeatzea.
- g) Pertsona fisikoak babestea datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez.
- h) Autonomia Estatutuaren defentsa juridikoa.
- i) Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa eta, oro har, legezketasunaren barne-kontrola eta aholkularitza juridiko orokorreko eginkizunak betetzea.



- j) Eusko Jaurlaritza eta bere organoak judizioetan ordezkatu eta defendatzea.
 - k) Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Eskubide Zibil eta Berezia.
 - l) Toki-araubidea.
 - m) EAEko administrazioen antolaketa eta prozeduraren araubidea eta EAEko gobernantza publikoa aplikatzeko modeloa diseinatzea, politika publikoak definitu eta gauzatzekoan.
 - n) Elkarte, fundazio eta elkargo profesionalak, sailek, beren eremu barruan, horiekiko izan ditzaten harremanak kontuan izanik.
 - o) Hainbat sailetarako diren zerbitzuak eta jarduera editoriala.
 - p) Informazio sistemak eta telekomunikazio korporatiboak.
 - q) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
 - r) Legeek eta erregelamenduek eman diezazkioten gainerako ahalmenak.
2. – Honako hauek daude sail honi atxikita: Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa; «Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)» administrazio-erakunde autonomoa; eta «ITELAZPI, SA » eta «Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE)» sozietate publikoak.

Hortaz, dekretu-proiektua egitea sustatu da, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 7. artikuluko horretan esleitutako arloei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2020ko azaroaren 24an, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG_DEC_108546/20_04), honako agiri hauek agertzen dira:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Justifikazio-memoria, Zerbitzu zuzendariak sinatua.
- Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.



II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, xedapen orokorraren edukiak, zati batean, kontratazio publikoaren eremuko alderdiei eragiten baitie, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.

Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuko a) letraren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzardeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzarde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzarde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatuko dira:

«6. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikuluan oro har esleitzen zaizkion egitekoez gainera:

[...]

d) Sailaren kudeaketa ekonomikoa eta aurrekontukoa egitea, dagozkion informazio-sistemak, ebaluazio jarraituko sistemak eta jarraipen-sistemak ezarriz eta mantenduz.

e) Sailari dagozkion gaietan aholkularitza juridikoa ematea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekeo ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoaren arabera; izan ere, saileko aholkularitza juridikoa



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Junta Asesora de Contratación Pública

zuzendaritza honi atxikita dago. Halere, Zerbitzu Zuzendaritzaren egiteko hau alde batera utziko da baldin eta sailean zuzenbide-aholkularitzako zeregin espezifikoak esleituta dituzten beste administrazio-unitate batzuk ezartzen badira, bakoitza bere esparruan. Halaber, saileko Aholkularitza Juridikoak izapidetuko ditu sailburuak ebatzi beharrekoak diren saileko organoek emandako egintzak eta xedapenak ofizioz berrikusteko eta kaltegarri deklaratzeko prozedurak.

f) Sailari dagozkion gaietan, oro har, irizpen teknikoak prestatzea saileko organoek hala proposatzen dutenean, eta, halaber, eskatzen zaion laguntza ematea xedapen orokorrak prestatzeko eta administrazio-egintzak emateko prozeduretan.

[...]

h) Kontratuen arloko txostenak egitea, espedienteak izapidetzea eta errekurtsio arruntak eta gorabeherak ebaztea.

[...]

j) Aldizkari ofizialetan argitaratu beharreko gaiak izapidetzea.

k) Sailaren zerbitzu informatikoen jarraipena egitea eta, hala badagokio, horiek kudeatzea.

l) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin, gainerako zuzendaritzek hizkuntza-normalizazioan egiten duten lana koordinatzea eta dinamizatzea, hala nola euskararen sustapena ere egitea politika publikoetan eta sailak kudeatzen duen beste edozein arlotan.

[...]

3.- Zerbitzuen zuzendaria sailaren kontratazio-organoa da, dekretu honen 20.2. artikuluan aurreikusitako eremuen kontratazio publikoetan izan ezik.

4.- Era berean, saileko gastuak baimentzea dagokio, dekretu honen 20.2. artikuluan aurreikusita dauden eremuetako kontratazio publikoei dagozkienak izan ezik, hargatik Gobernu Kontseiluaren eskumenak eragotzi gabe. Kreditu-transferentzien izapidetzea ere bere eskumenekoa da.

5. – Zerbitzu zuzendariari dagokio negozio juridikoak izenpetzeko eskumena, baldin eta negozio juridiko horien bitartez mandatua ematen bazaio erakunderen bati prestazioren bat egiteko, eta erakunde horrek, sektore publikoko kontratazioa

**«20. artikulua.- Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetza**

[...]

2.- Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordeak kontratazio-organoari dagozkion eskumenak beteko ditu, baita gastuak baimendu ere, arlo hauetan sustatzen diren kontratazio publikoetan:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren I. tituluko III. kapituluko 1. atalean araututako higiezin kudeaketa bateratua.
- b) IKT zerbitzuen kudeaketa bateratua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko ereduari buruzko martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan arautua.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren argitaratze-jarduera, irailaren 25eko 135/2018 Dekretuan arautua.
- d) Administrazio Ibilgailuen Atalaren kudeaketa, uztailaren 27ko 300/1999 Dekretuari jarraituz, horren 2. eta 3. artikuluek zehazten duten eremuan.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistema, uztailaren 22ko 174/2003 Dekretuak ezartzen dituen antolamenduari eta funtzionamenduari jarraituz.

[...]

«22. artikulua. – Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

Baliabide Orokorren Zuzendaritzak, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren egitekoez gain, honako eskumen hauek ere izango ditu:

- a) Hornikuntzen, lanen eta zerbitzuen normalizazioa eta/edo homologazioa proposatzea, baita hornikuntzen, lanen eta zerbitzuen kontratazioaren zentralizazioa edo deszentralizazioa ere.
- b) Kudeaketa bateratuko higiezinetan egin beharreko obrei dagokienez:
 - Obren planek eta haien garapen-programek bete beharreko arauak finkatzea kudeaketa bateratuko higiezinetan, diseinuari eta kalitateari dagokienez, bai eta higiezin horien erabilera-estandarrak, azalera eta erosotasun-baldintzak ezartzea ere.



- Dagozkion proiektuak idaztea, kontratuak prestatzeko administrazio-jarduerak gauzatzea, obren burutzapena zuzentzea eta beharrezko jarduerak egitea ziurtagiriak ordaintzeko eta obrak ordaintzeko, hartzeko eta likidatzeko.
- Kontratazio-organoak behar dituen laguntza teknikoko eta materialeko egiteko guztiak betetzea.
- Zerbitzu espezifiko gisa jardutea proiektuen ikuskapena, ikuskapen teknikoa eta kalitate-kontrola eta ziurtagirien jarraipena egiteko, kontratazio-arloko indarreko araudian xedatutakoaren arabera.
- c) Kudeaketa bateratuko higiezinak eta bertako instalazioak mantentzea; energiaren eta eraikin horien komunikazio-sistemak kudeatzea; halaber, oinarri teknikoak eta eskaintzei buruzko azterlanak lantzea, mantentze horiek kontratatu behar badira, baita horiek gauzatu, ordaindu, hartu eta likidatzeari dagozkienak ere.
- d) Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea eta hornitzea, kudeaketa bateratuko higiezinatarako badira.

[...]»

«BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa

Zerbitzu Zuzendaritzak administrazio-laguntza eta -babesa emango dizkio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari, honek hala eskatuz gero, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 14. artikulua hainbat arlotan (langileak, kontratazioa, bitarteko material eta informatikoak eskuratzea eta kudeaketa ekonomikoa eta aurrekontu-kudeaketa) esleitzen dizkion eskumenez baliatzeko, betiere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 13.2 artikuluan xedatutako bermea betetzeko,

eta batzorde horren antolamenduaren eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz».

«XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. Aribidean dauden espedienteak izapidetzea

Dekretu honetan ezarri diren organoek izapidetuko eta ebatziko dituzte aribidean dauden espedienteak, kasuan kasuko gaiaren arabera.»



116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen du: «*Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak [...] salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]».*

Eskumen hori erabiliz, dekretu-proiektuak honako xedapen hauek jasotzen ditu:

- 6. artikuluko 3. apartatuaren arabera, Zerbitzuen zuzendaria sailaren kontratazio-organoa da, dekretu honen 20,2. artikuluan aurreikusitako eremuen kontratazio publikoetan izan ezik. Gauza bera adierazten du 4. apartatuak, gastuak baimentzeari buruz.

-20. artikulua 2. apartatuaren arabera, Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea izango da kontratazio-organoa, eta berak baimenduko ditu honako hauei buruzko kontratuetako gastuak: higiezin eta IKT zerbitzuen kudeaketa bateratua, argitalpen-jarduera, parke mugikorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren artxibo-sistema.

Beraz, eskumen-banaketa horrek irizpide materialak eta ez-kuantitatiboak hartzen ditu kontuan, sail bakoitzaren barruan kontratazio-organoak zehazterakoan ohikoa den bezala, baina ez da eragozpen irizpide material hori ezartzeko Administrazioaren kudeaketa bateratuko edo zeharkako higiezonei edo zerbitzuei buruzko kontratazioetan.

Baliabide propio pertsonifikatuei enkarguak egiteko eskumena zerbitzu-zuzendariari esleitzen zaio, IKT zerbitzu bateratuetan edo errepikarietan izan ezik; horretarako, Batzorde honek ez du eragozpenik ikusten,

zeren Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 15. artikulua g) eta h) letretan «IKTen arloko zuzendaritza eskudunari» esleitzen baitzaio enkargu horiek onesteko ahalmena.

6. artikuluko 1. apartatuko l) letrari buruz, Saileko edozein eremutan euskara sustatzeko eskumenari dagokionez, aipatu behar da kontratazioaren eremuan eskumen hori garatu behar dela, Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilaren 26ko Erabakian onartutako jarraibide eta printzipioen arabera. Erabaki horren bidez,



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Junta Asesora de Contratación Pública

onartu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak sektore publikoko kontratuei buruzko legediaren esparruan egiten dituen kontratazioetan Euskararen erabilera eta ezagutza txertatzeko printzipio orokorrak ezartzen dituzten jarraibideak. Txosten honen xedea ez bada ere, kontuan hartu behar da jarraibide horiek zehaztu egin behar direla, hizkuntza-klausulak ezin baitira eskatzen diren gaitasun teknikoko baldintzetako edukia izan.

Proiektuaren 12. artikulua Herritarrentzako Arretaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritzaren eskumenei buruzkoa da, baina ez da transkribatu, ez delako zuzenean eragiten edo ez delako kontratazioari buruzkoa. Dena den, komeni da gogoraraztea k) letratik t) letrara bitarteko letretan ezarritakoak –administrazioaren zerbitzu elektronikoak, digitalizazioa eta abar– ez dituela eragozten Ogasun eta Ekonomia Sailaren Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak arlo hauetan dituen eskumenak: lizitazio elektronikoa; lizitatzailen eta enpresa sailkatuen erregistro ofiziala; kontratuen erregistroa, etab.

14. artikuluari dagokionez, Araubide Juridikoaren Sailburuordetzaren eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren aholkularitza juridikoko funtzioak transkribatu badira ere, komeni da ohar bat eranstea, modu honetara egingo dutela adieraziz:

«Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea kontuan hartuta eta harekin lankidetzan, batzorde horren osoko bilkuran batzordekide bat izendatuta baitu Sailburuordetzak».

Azkenik, 22. artikuluan aipatzen diren transkribatutako letretako kontratu-eremuko gaiei buruzko Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren eskumenei dagokienez, ez du eragozpenik ikusten Aholku Batzorde honek. Baina horniduren, obren eta zerbitzuen «normalizazioa eta homologazioa» esapidea (artikuluko a) letra) ez dagokio egungo kontratazio publikoaren araudiaren nomenklaturari; beraz, hori argitzea edo termino egokiagoekin ordeztzea iradokitzen da, adibidez «obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioa arrazionalizatzea», edo «obren, zerbitzuen eta horniduren esparru-akordioak», edo zehazki aipatu nahi dena.

Era berean, eta a) letra horretan bertan, «kontratazioaren zentralizazioa edo deszentralizazioa» ordeztu beharko litzateke Zuzendaritza honek arlo hauetan dituen



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Junta Asesora de Contratación Pública

eskumenekin: horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazio zentralizatuko deklarazioak edo bere eskumeneko esparruetan erosketen zentralak egotea edo konfiguratzeari.

Kontuan hartuta esandakoa, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukian kontuan hartzen badira txosten honetan emandako gidalerroak eta aholkuak.